

aitaren sekretua



Izenburua: Aitaren sekretua

Egilea: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier, 36
01005 VITORIA-GASTEIZ
www.emakunde.es
Telefonia: 945-016700

Testuak: Karmele Jaio

Marrazkiak: Alexander Jaio

Diseinua eta maketazioa: EPS, Eusko Printing Service

Fotomekanika: EPS, Eusko Printing Service

Inprenta: Grafilur, S.A.

L.G.: BI-2472/08



○ Aitareen sekretua ○

–Aitaaa...

–Zer, Julen?

–Ezin dut lorik egin.

–Lo egin behar duzu, maitea. Bihar goiz jaiki behar duzu ikastolara joateko...

–Baina ez daukat logurarik, aita

–Ipuin bat kontatzea nahi?

–Bale! Zein?

–Hiru txerritxoena?

–Ez, aita! Hori betikoa da... Ez dakizu besterik?

–Bada... ez.

–Ez?

–Bueno... Bai, badakit bat...

–Berria da?



–Bai. Eta oso berezia da. Barruan txiklea duen gozoki bat bezalakoa da. Badakizu zergatik? Honek ere barruan zerbait gordetzen duelako... sekretu bat .

–Sekretu bat? Zein sekretu?

–Gozokiari haginka egin arte ez da txiklea agertzen, ezta?

–Ez.

–Ba, hemen berdin. Ipuina bukatu arte ezin sekretua esan.

–Aitaaa, baina nik sekretua jakin nahi dut!

–Orduan adi egon eta entzun ipuina begiak itxita. Baina bukatu arte ezin dituzu begiak ireki, e?

–Benga, aita, itxi ditut begiak... Hasiii...



Ba zen behin gizon bat, bere izena zen... Fidel. Margarekin batera bizi zen etxe txiki batean. Egun batean, Marga lanetik etxera bueltatu zenean, Fidelek aurpegi arraroa antzeman zion. Begiak inoiz baino handiagoak zituela iruditu zitzaion. Eta irribarre moduko bat ezkutatzan zuela ezpain artean.

–Haurdun nago, Fidel. Haur bat izango dugu –esan zion halako batean Margak, eta Fidel pozaren pozez zorabiatu egin zen eta lurrera erori zen.

–Ondo al zaude, Fidel? –galdetu zion Margak lurrean bere alboan belauniko jarrita.


–Bai, Marga... Aita izango naiz, ezin dut sinistu!

–Nik uste nuen koskorra neuri atera behar zitzaidala sabelean eta ez zeuri buruan! –esan zuen halako batean Margak, Fideli buruan atera zitzaion handituari begira. Eta barrez lehertu ziren biak.



Aitarek sekretua






Hilabete batetik bestera Margaren sabela handitzen ari zen. Han barruan haur txiki bat hazten eta hazten zihoan. Medikuak mutila zela esan zien eta Aitor deituko ziotela erabaki zuten.

Askotan, etxean zeudenean laztan egiten zion Margaren sabelari, horrela, esaten zuenez, umeak bere aitaren eskuak ezagutuko zituelako jaio aurretik. Umearen taupadak entzuten zituela, halako kili-kilia sentitzen zuen berak ere sabelean. Norbait barruan danborra jotzen balego bezala.

–Begira, Marga, hau gero ezingo dut egin, laztan bakarrarekin bi pertsona laztantzen ditut batera. Zeu eta umea! Magia egitea bezalakoa da!

Margak barre egiten zuen beti Fidelen ateraldiekin.


–Hau ere nik ezingo dut sentitu gero: bi bihotz daude orain nire gorputzaren barnean taupadaka! Hau bai dela magia! –erantzun zion Margak.



Fidel eta Marga pozez gainezka zeuden, eta egun osoa igarotzen zuten haurra nolakoa izango zen pentsatzen, harentzako gela prestatzen, elkarrekin gimnasia ikastaroetara joaten... Baina urduri ere bazeuden. Abentura handi baten aurrean zeudela sentitzen zuten eta Fidelek inoiz bere burua esploratzaile baten antzera imajinatu zuen. Hainbeste gauza zuten oraindik deskubritzeko... Fidelen burua galderaz beteta zegoen: Umea jaio bitartean, zer egin behar zuen berak? Eta umea jaiotzen zenean? Jakingo zuen umeari nola heldu? Jakingo zuen aita izaten? Eta zer zen duela hilabete batzuk barruan sentitzen zuen kili-kili arraro hori?

Munduko aita onena izan nahi zuen, baina zer egin behar zuen horretarako? Nork erakutsiko zion aita izaten?





Bere aitari galdetzea bururatu zitzaion. Dagoeneko aitona ere bazen, Fidelen arrebari esker. Berak ziur emango ziola aholkuren bat.


–Egia esan behar dizut, Fidel. Gure garaian ez genuen aukera izan aita osoak izateko... Orain, aitona naizenean konturatu naiz horretaz.

–Zergatik esaten duzu hori?

–Denbora gutxi egiten genuen zuekin, seme-alabekin. Eta badakizu? Orain pena daukat. Gizonek egun guztia pasatzen genuen etxetik kanpo, eta orain zuekin igaro ez nuen denbora guztia ilobarekin ematen dut. Nire gomendioa da: Zaindu ezazu zeure semea, zeure altxorra da eta.

–Eta ez hori bakarrik –esan zuen halako batean Fidelen amak.

–Erakutsi berari ere pertsonak zaintzen. Egunen batean berak ere egin beharko duelako.




Azkenean heldu zen eguna. Ospitalean, Margak sekulako indarrak egin zituen bere barnetik haurra ateratzeko.

–Gero neskak ahulak direla esango dute... –pentsatu zuen Fidelek, Margaren izerdiak ikusita.

Halako batean, umearen negarra entzun zenean, Fidelek sekulako berotasuna sentitu zuen, bere burua eltze baten barruan egosten balego bezala.

Umea besoetan hartu, muxu eman, eta Margaren besoetan jarri zuen. Umea berehala hasi zen titiaren bila.



Ospitalean igarotako egunetan, Marga ohean zegoen bitartean, erizainek oihalak aldatzen eta umea bainatzen irakatsi zioten Fideli.

Hasieran trakets ibili zen, baina azkenean ikasi zuen, ondo ikasi ere, eta etxera heltzean Margari erakutsi zion umea bainatzen, oihalak aldatzen... Ospitalean berari erakutsi zioten guztia.

Margak nekatuta jarraitzen zuen oraindik. Nahiko lan zuen umeari titia eman eta erditzetik errekuaratzearekin. Zenbait astetan Fidelek hartu zuen bere kargu etxeko lan guzti-guztia. Horretarako baimena eskatu zuen lantokian.



Aitareen sekretua





Zenbait hilabete pasatu ziren eta egun batean gauza zoragarri bat gertatu zen. Fidel eta umea bakarrik zeuden gelan eta umeak halako batean zuzen-zuzen begiratu zion eta esan zion:

–A..i..t..a!

Orduan, Fidelek inoiz baino kili-kili indartsuagoa sumatu zuen sabel inguruan.

–Zer da hau? –galdetu zion bere buruari, sabelari helduta.

Eta ez zuen asmatu. Oraindik ere ez daki zer den. Baina Aitorrek «A..i..t..a» esaten dion bakoitzean sekulako kili-kilia sentitzen du sabelean, eta kili-kili horrek irribarrea ateratzen dio, barregura ematen dio. Zergatik egiten duen barre galdetzen diotenean, berak ez du ezer esaten. Sabelean sentitzen duen kili-kiliarena bere sekretua baita. Ez dio oraindik inori kontatu. Eta erabaki du Aitorri bakarrik kontatuko diola, baina oraindik ez, hobe hazten denean, hemendik urte batzuetara.



–Julen? Lo geratu zara?... Neuk ere sekretu txiki bat kontatu nahi nizun ipuina bukatzean. Badakizu? Neuk ere kili-kili berezi bat sentitzen dut sabelean aita deitzen didazun bakoitzean... Bai gauza arraroa, ezta? Hau ere magia modukoa da... Zer ote da?

–Txiklea.

–Baina lo zeundela uste nuen.

–Ez, begiak itxita nituen bakarrik.

–Nola txiklea?

–Bai, barruan txiklea duen gozokia bezala. Agian zuk ere kili-kilia egiten dizun txiklea daukazu barruan.

–Bai, agian denek daukagu barruan txikle bat, altxor bat bezala, eta batzuetan hor dagoela konturatzen garenean, kili-kilia sentitzen dugu.

–Nik ez dut kili-kilirik.

–Ezetz? Ikusiko duzu orain...

–Ai, Aita! Ez egin kili-kilirik! Ez!!

- Sentitzen duzu orain?
- Bai, bai, bai! Utzi mesedez...
- Bueno, orain lo egin behar duzu.
- Bihar berriz kontatuko didazu ipuina?
- Hiru txerritxoena?
- Ez! Txiklearena.
- Ondo da. Baina orain lo egin behar duzu. Gabon.
- Bale. Gabon... a..i..t..a!

amaiera



Aita izatea aukera ona da pertsonak zaintzen eta eguneroko zereginak berdintasunez banatzen ikasteko. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak «Aitaren sekretua» izenburuko ipuina argitaratu du erantzukizunean oinarritutako aitatasun eredu bat sustatzeko eta eguneroko bizitzan berdintasuneko jarreraren aldeko alaketaren beharra azpimarratzeko.

